



TAXIEN MAHAIA

2024ko urriaren 2a

GAI-ZERREDA:

1. Ongi etorria.
2. Informazioa hurrengo gaietara buruz:
 - ✓ Seinaleak eta behin-behineko geltokiak hobetzea
 - ✓ Getxoko taxietarako ibilgailu elektriko eta egokitu erosteko 2024ko laguntzak.
 - ✓ Ostatu-mahaiak taxien mahaiari egindako eskaera: taxien eskuragarritasuna bermatzen laguntzea ostatueta bezeroentzat .
 - ✓ Uda honetan, Getxon egiten diren itsas bidaien egoeraren azterketa eta ebaluazioa.
3. Galderak, iradokizunak eta beste batzuk.

BERTARATUAK: % 100

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	EZ BERTARATUAK	
			Arrazoi emanda	Arrazoirik eman gabe
Taxi-sektorea	José Ignacio López (BizkaiaTaxiko presidentea)	X		
Getxoko Udala Ekonomia Sustapenaren Arloa	Idoia Belasko	X		
	Mercedes Montalbán	X		
	Rubén Justicia	X		



1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Idoia Belaskok, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, bilerara bertaratu direnak agurtu eta aurkeztu ditu; ondoren, gai-zerrendari heldu dio.

2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) Seinaleak eta behin-behineko geltokiak hobetzea.

José Ignaciok, BizkaiTaxi elkarteko presidentek, Taxien geralekuetan izan diren kokapen-aldaketei dagokienez, adierazi du bi egoera horiek zuzentzeko eskatu zela, eta garrantzitsua litzatekeela dagokion teknikariari horren berri jakinaraztea. Ia urtebete igaro eta gero, konpondu gabe jarraitzen dute:

- PANDA “txinatarra” geltokian (Kale Nagusia): Lau edukiontzi berri jarri direnez, taxi-gidariak ez dute ikusgaitasunik. Gauzez ez zaie ikusten. Edukiontziak eskuineko aldean jartzea proposatu du, Kale Nagusian, Zalama kalearen gurutzagunean.
- Bizkaiko Zubiaren geltokian, Leioarako norabidean: taxi-telefonoaren seinalea gaizki jarrita dago. Bizkaiko Zubiaren ondoan jartzea proposatu du, turistei zerbitzua kontrata dezaten errazteko.

Idoia Belaskok adierazi du dagokion sailera helarazi zuela, hobetzeko xedez, eta konpromisoa hartu du hobekuntzak berriro erreklamatzeko. Jose Ignaciok adierazi du ez duela inolako aurrerapausorik ikusi.

Mercedes Montalbanek adierazi du, udal ordenantzak dioenez, gutxienez, taxi bat egon behar dela geltokian zerbitzua emateko, eta eskakizun hori ez dela betetzen ari. Jose Ignaciok erantzun du bai betetzen ari dela, baina eskaria handitzen den kasuetan, lehentasuna ematen diotela bezeroei zerbitzua emateari, geldirik egoteari baino.

b) Getxoko udalerrian, taxi gisa erabiltzeko ibilgailu egokituak erosteko edo eraldatzeko laguntzak.

Idoia Belasko Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak esan du 2024ko irailean argitaratu dela deialdia, deialdiak indarrean jarraitzen duela eta, orain arte, ez dela inor aurkeztu.

Elkarteko presidente Jose Ignaciok adierazi du horrelako ibilgailuak erosteak kostu oso handia duela, nolabaiteko prestakuntza teknikoa behar dela, eta taxilariak sasoi onean egon behar duela zenbait mendekotasun dituzten bezeroei zerbitzua emateko. Zailtasun horiez gain, adierazi du ibilgailu egokituak errentagarritasun txikiagoa ematen duela, denbora gehiago behar baita zerbitzua emateko (irteera eta sarrerak prestatzeko denbora gehiago behar da). Hala eta guztiz ere, aitortu du Getxon horrelako zerbitzuen eskaera handia dagoela, getxoztarren zahartzea dela eta.

Jose Ignaciok gogorarazi du elkarteak lehenago proposatu zuela ibilgailua elkarteak berak erostea eta taxilari guztien artean kudeatzea, horrela, zerbitzua bermatuko bailitzateke udalerrian. Alabaina, proposamena atzera bota zen, egungo ordenantzak onartzen ez duelako.



Eguneroko lanak ematen dion eskarmentuan oinarrituta, Jose Ignacio bat dator Udalak nolabaiteko mendekotasuna duten pertsonen mugikortasunaren alde egin behar duela programa zehatzen bat bultzatuz, mugikortasun- eta desgaitasun-arazoak dituzten bezeroen eskaria gero eta handiagoa dela antzematen baitute taxilariak. Gaur egun, zerbitzu hori modu prekarioan betetzen ari da, udalean taxi egokiturik ez dagoelako.

Idoia Belasko udal teknikariak adierazi du Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonentzako taxi-bonuak erabiltzen hasi direla.

Informazio gehiago: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/listado-tramites/-/tramiteak/xehetasuna/6/1395>

c) Ostatu-mahaiak taxien mahaiari egindako eskaera: taxien eskuragarritasuna bermatzen laguntzea ostatueta bezeroentzat.

Idoia Belaskok azaldu du ostatu-mahaiak eskaera formala egin nahi izan diola taxien kolektiboari, ostatu hartutako bezeroei taxi-garraioko zerbitzua bermatzeko aukerak bilatzeko helburuz.

Jose Ignaciok erabaki du bilera bat izatea ostatu-mahaiko bi ordezkariekin.

d) Uda honetan, Getxon egiten diren itsas bidaien egoeraren azterketa eta ebaluazioa.

Bilera behar baino gehiago luzatuenez, itsas bidaien eta gurutzaontzien gaia aurrerago aztertzea erabaki da.

3. Galderak, iradokizunak eta beste batzuk.

Oro har, Jose Ignacio kezkatu agertu da Getxoko Udalak darakutsan taxi-sektorearekiko komunikazio eta interes faltagatik. Bestalde, esan du oso tratu abegikorra jaso dutela beti udaltzainen, ostatueta arduradunen eta Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikarien partetik.

Hala Idoia Belasko nola Mercedes Montalbán prest agertu dira behar diren iradokizun guztiak sail egokietara helarazteko, komunikazio erraza ahal den neurrian hobetzen saiatzeko.

4. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa biltzea: Urriak 30. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.



TAXIEN MAHAIAREN ERABAKIAK (2024-10-02):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Bilera bat finkatzea ostatu-mahaiko ordezkariekin erreserbei buruzko akordioa/hitzarmena adosten saiatzeko.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Azpiegituren Sailari seinaleak eta geralekuak berregokitzeko beharra helaraztea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Taxi egokituari buruzko proiektuaren gaineko ikuspegi berria lantzea, beste eredu bat erabiliz.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. Beste bilera bat egiteko deialdia zabaltzea, gurutzaontziko bidaiariak eskatzen dituzten taxi-zerbitzuari buruz aritzeko.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera